

Maria Karrera Agirrebarrena

*Amezketako,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea

Biografia



Amezketako "Lizeaga" baserrian jaioa. Herreran neskame eta Amezketako estankotan lanean aritua. Tabernara sartu izanagatik herriko apaizak pulpitutik hartu zien kargu berari eta beste neska gazte batzuei.

Zintak

AME-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-12-03
- **Iraupena:** 94 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

Pasarteak

1. Amezketako Talai-dantza

- **Erref:** AME-001/034
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:03:10. **Bukatu:** 01:04:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Talai-dantza Amezketa eta Bedaion Inauteri igande eta astelehenean mutilek dantzatu ohi zuten makil-dantza da. Etxez etxe ibiltzen ziren.

2. Astoa hartu eta gari edo esne karreoan

- **Erref:** AME-001/036
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:06:19. **Bukatu:** 01:09:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bi errota zeuden Amezketan. Mariak garia errotara eramaten zuen asto gainean, neska koskorretan askotan. Lau kilometro inguruko bidea zuela kontatzen du. Esnea etxez etxe banatzen ere ibiltzen zen goizean goiz.

3. Baserriko lanak, eskolaren ginetik

- **Erref:** AME-001/037
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:09:24. **Bukatu:** 01:12:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian lana ez zen inoiz falta, eta gehienetan horrek lehenetasuna izaten zuen eskolara joatearen aldean. Mariak gogoan du baserrian lanean geratu beharrak amorrua ematen ziola, iruditzen baitzitzaion eskolako lagunak ikasketetan aurrera egiten ari ziren bitartean bera atzean geratzen ari zela. Gaztainak biltzera joan zeneko anekdota bat kontatzen du, non astoak gainean jarri nahi izan ziren pertsonak bat lurrera bota zituen.

4. Astoari ez jarraitzeagatik galdu zen mendian

- **Erref:** AME-001/038
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:12:56. **Bukatu:** 01:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Aitari mendira bazkaria eramateko, beti eskuineko bidea jarraitu behar zuela esan zion amonak baina astoak ezkerreko bidea hartu nahi zuen. Mariak amonari kasu egin eta ondorioz galdu egin zela kontatzen du.

5. Aitorlekuaren beldur: dena zen bekatu

- **Erref:** AME-001/045
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:26:42. **Bukatu:** 01:29:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erligioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Aitorlekuari eta apaizari kontatu beharreko kontuak. Beldurrez egoten zirela diote, infernu eta bekatu kontuak baino ez zituztelako entzuten

6. Neskame izatetik herriko estankora

- **Erref:** AME-001/046
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:29:46. **Bukatu:** 01:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Herreran ibili zen lau urtez neskame Maria. Gazteleraz hitz egiten ez zekien hartan. Anaiak soldadutza egin behar zuelako itzuli behar izan zuen etxera. Herriko estankoan jardun zuen gero lanean. Denetik egin behar izaten zuen estankoan.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com